

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

hoska	«...behin Larrantza pasatu zuenez gero, Lauztiazpiko mutil hori hoska hasi omen zen: —Aingeru Goardakoa baldin bahaiz, azal hadi!..»
arbi	«Behin Artzateko baserrian, gizon zaharra joan omen zen sorora, saski arbi bat ekartzera.»
bazkatu	«Behiei jaten eman, eta bazkatzen ari zirela, gizonak zer entzun zuen esan zien etxekoei, kantatuz...»
gori-gori	«Talo-burdina han zeukan surtan, gori-gori eginda.»
gatzura	«Aralarren ba omen zen artzain bat, eta egunero jentil haundi bat etortzen omen zitzaion, txerrientzat zeukan gatzura edatera.»
kalostra	«Hortxe gauerdig inguruan esnatu zenean, hizketa hots haundi bat entzun zuen kalostran .»
partitu	«Garai hartan, lapurrak eliza atarian bildu ohi omen ziren, eta beti gauez, harrapatutako diruak partitzeko .»
bilkura	«Gauerdian izan ohi zituzten bilkurak , eta orduan erabakiko zuten mutilari zer esan.»
habea	«Haurra jaoitzen denean, ni armiarma baten antzean jaitsiko naiz goiko habetik , haurraren buru gainera...»
zital	«Nagusia haserretu zen, baina neskame zital hura berearekin ez zuela atera behar pentsatuz, zahato txiki bat eman eta...»
garrasi	«Gau batean, ama eta mutikoa biak lo zeudela, mutikoa bat-batean garrasiz eta saltoka hasi zen.»
dardarizo	«Atera zuen orratz hura, eta Blanca Nievesen gorputz guztiak dardarizo bat bezala izan zuen.»
kordea	«Blanca Nieves lurrera erori zen korderik gabe, hilda.»
amilka	«Azkeneko mailetara iristean, gorputzak ihes egin zien; denak han erori ziren amilka .»
berekoia	«Enano horiek oso berekoiak ziren; horregatik zeukan bakoitzak bere lapikoa jana jartzeko...»
abelera	«Bere aitak, berriz, Blanca Nieves oraindik gaztetxo zela etxeko abelera hartzeko, eta ezkontzea pentsatu zuen, beste ama bat izan zezan.»
gaitz	«Blanca Nievesek hamalau-hamabost urte zituenean, bere ama gaitz gogor batek harrapatu zuen eta hil egin zen.»
ezteia	«Ezkontzeko eguna izendatu zuten, eta maiorazkoak nahi izan zuen herri guztiak parte hartzea eztei hartan.»
txuma eginda	«...eguraldi txarrak eta hotzak hasi zirenean, dena bustita, txuma eginda etortzen zen Maria gaixoa menditik.»
maiorazkoa	«Bi alaba eta seme bat ziren etxearen jabeak eta mutila zen maiorazkoa .»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

tekela	«Hiru ahizpek tekela handiak izaten zituzten beren artean, eta aita ere sartzen zen batzuetan tekela haietan.»
abistua	«Mutila atera zen leihora, eta bi behatzak ahoan sartuaz, berealdiko abistua egin zuen, zakurrei hots egiteko.»
bere baitan	«Mutila harrituta gelditu zen zakur haiek ikusita: "nireak balira", zioen bere baitan .»
zalaparta	«...eta ikustekoa izan zen hango istilua, hango irrintziak eta zalapartak .»
larru gorrian	«Jantzi zen berriz larru gorrian zegoen mutila eta lapurrekin gelditu zen eguna zabaldu arte.»
atalaga	«Ateek atalaga , maratila edo giltzaren bat ote zeukaten ondo begiratu zien, baina alferrik: han ez zen ezer ikusten.»
maratila	«Ateek atalaga, maratila edo giltzaren bat ote zeukaten ondo begiratu zien, baina alferrik: han ez zen ezer ikusten.»
balihoa bezala	«Arratsaldean, ehizara balihoa bezala , joan zen anaia gaztea lapurren leizea zegoen tokiraino.»
bapo	«Nahikoa jan eta bapo jarri zenean...»
ezinikusia	«Beharbada ezinikusia ziolako eta berak baino diru gehiago ez izateagatik.»
miatu	«Bazter guztiak miatzen hasi zen denborarik galdu gabe...»
palastaka	«Berehala hasi zen palastaka eskuak ibiltzen eta arnasa ezin harturik...»
basoerdi	«Bidean zihozazela, bi gizonak taberna batean sartu ziren, basoerdi bana hartu behar zutela eta...»
osin	«Berehala abiatu ziren beheko ibaira, han zegoen osin haundi batera bota behar zutela-eta.»
txilibitua	«Gero nik txilibitua joko dizut belarri ondoan, eta jaiki egingo zara.»
zahatoa	«Bete ezazu zahato txikia ardoz, eta jar ezazu golkoan.»
pronto	«—Joan hadi eta esan nagusiei bazkaria pronto dagoela.»
isatsa	«...txerrien isats guztiak beretzat behar zituela, etxera eramateko.»
siratsa	«Mendi haundi batetik pasatu behar zuen, eta bazekien hark non zegoen sirats bat.»
itutea	«...palazioko teilatu gainean ibili naiz, eta han ez da erbi arrastorik azaldu. Ituteak bai, izango dira han ugari.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zuztarra	«Morroiak hartu zituen idiak eta gurdia eta, nagusiak zeukan mahasti batera joan, zepa guztiak zuztarretik atera zituen eta...»
larrutu	«Gu biotan aurrena haserretzen dena bizi-bizirik larrutua izan dadila. Ondo iruditzen al zaizu?.»
lukurra	«—Bai —erantzun zion nagusiak, izan ere oso lukurra zen, eta soldatarik gabe lana egingo ziola agindu zionean besteak...»
kopeta	«Orduan mutila jaitsi zen pikutik, isil-isilik, hartu zuen eskuan uso arrautza, eta zastaaa...! lehertu zion etsai zaharrari kopetan .»
kontu kontari	«Neskak eta biek ardiak bildu zituzten eta etxera itzuli ziren, kontu kontari .»
mailo	«Neska, han inguruko mailo baten atzean ezkutatuta zegoen, eta hitz horiek entzutean, lasterka atera zen...»
berealdiko	«Mutilak ardiak lehoiaren barrutian sartu orduko, han azaltzen zen hau berealdiko orroak eginez...»
begiratu	«—A...!, nik halako tokitan bizi den nire anaiaren begiratu bat baneuka hemen!, ez nitek hire beldurrik...»
larria	«Alaba neska larria zen eta bera ibiltzen zen artzain eta beste lanak egiten...»
aldarte	«Alabak aditu izan zion noizean behin, bere aitari, aldarte onean zegoenean, bera ez zela hilko eta inork ere ez zuela hilko...»
antzeman	«Oso neska ederra zen eta goxoa eta argia, gauzei azkar antzematen ziena.»
gerturatu	«—Zer behar duk hemen? —esan zion etxe hartako nagusiak, mutila gerturatu zen ordurako.»
hargin	«Makina bat lan klase probatu zituen: artzain, itzain, ikazkin, hargin eta beste asko, baina behin ere ez bere gustukorik.»
ikazkin	«Makina bat lan klase probatu zituen: artzain, itzain, ikazkin , hargin eta beste asko, baina behin ere ez bere gustukorik.»
itzain	«Makina bat lan klase probatu zituen: artzain, itzain , ikazkin, hargin eta beste asko, baina behin ere ez bere gustukorik.»
zer gerta ere	«...eta haruntzaxe joatea pentsatu zuen, zer gerta ere .»
adinean	«—Ez dakit, baina nolana ere hemen adinean izango al naiz.»
pardel	«Goiz batean, inori ezer esan gabe, hartu zuen pardeltxo bat (...) eta bideak aurrera abiatu zen.»
arlotte	«—Hi bezalako mutil argal eta arlottearekin hitz egiteko ez zegok hura!.»
eltze	«Mutilak ikusi nahi izan zuen zer ote zegoen surtako eltze haundi hartan.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

errainu	«Halako batean ikusi zuen, bazter batean, su errainu bat bezala.»
.....	
eskapulario	«Azkenean, atera lepotik, eta eskapulario bat eman zion esanez...»
.....	
etsi	«Ia etsi zuenean inor ez zela etorriko, etxera joatea pentsatu zuen.»
.....	
esnai	«Etsai Zaharra ere pazientzia galtzen ari zen, eta esnai edo lo, bi gazte haiekin egin behar zuena lehenbailehen egitea erabaki zuen.»
.....	
burruntzi	«...gau hartantxe hiltzeko asmoa hartu zuen eta baita burruntzi haundi bat surtan jarri ere, ondo guri zedin.»
.....	
guri zedin	«...gau hartantxe hiltzeko asmoa hartu zuen eta baita burrunzti haundi bat surtan jarri ere, ondo guri zedin .»
.....	
prantatu	«Ni hemen geldituko naiz eta zoaz ukuilura zaldi bat prantatzera .»
.....	
surtan	«...gau hartantxe hiltzeko asmoa hartu zuen eta baita burrunzti haundi bat surtan jarri ere, ondo guri zedin.»
.....	
patsa	«...zaldi gizajoa dena odola zeriola eta ahotik patsa botatzen zuela jarri zen.»
.....	
luku	«...laster azaldu ziren mahats kimuak lukuz beteta...»
.....	
herorri	«—Izan duk hik herorri baino laguntzaile hobea lan hori egingo bahuen...»
.....	
negar batean	«Etxeko guztiak, aita, ama eta senideak denak negar batean gelditu ziren.»
.....	
ontzako	«Dena bukatu zuenean, ontzia itzuli zion alkateari; ontzako urre batzuk ere bai.»
.....	
amutsa	«—Ez haiz amutsa —erantzun zion alkateak—, horregatixek nahi diat beste zerbait eskatu, ontzi hori hiri eman baino lehen.»
.....	
aztia	«Alkateak ezagutu beharra izan zuen ez zirela konturatu eta bera baino aztiagoak ere bazirela munduan...»
.....	
galtzarbea	«Hurrengo goizean, mutila galtzarbean izara zuela ate joka azaldu zenean...»
.....	
zaharkina	«Soinean zeuzkan jantziak erantzi, eta zaharkin batzuk jantzi zituen...»
.....	
laukoan	«Mutilak, lapur haiek ikusi zituenean, zaldia laukoan jarrarazi zuen eta tiro batzuk botatzen zituen bitartean, hoska hasi zen...»
.....	
elizakoak	«—Zoazte azkar holako herrira eta ekarri elizakoak . Bitartean nik konfesatuko dut hau.»
.....	
berealdikoak eman	«Orduan mutilak hartu zuen eskupeta kainoitik eta berealdikoak eman zizkion lapurrari.»
.....	